

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

• Bost zentzumenak: Begiratu eta entzun

Helburuak

- Bost zentzumenak lantzea.
- Zentzumenei dagokien hiztegia ikastea.
- Zentzumen bakoitzaren funtzioa ikastea.

Prozedura

- Umeei fitxa bana banatu eta arretaz begiratzeko eskatu.
- Gorputz-atalak landu berri ditugunez, hauekin hasi:
 - Zein gorputz-atal agertzen dira fitxa honetan? (arbelean zerrendatu).
- Arbelean zerrendatutako gorputz-atalen ondoan dagokion zentzumena idatzi. Horretarako, umeei galderak egin:
 - Zer egiten dugu belarriarekin? Entzun. Oso ondo! Entzumena da entzuteko gaitasuna.